

Hollywood eta gu

U

r Apalategi maitea, ez dizut orain arte esan, baina, oro har, asko gustatzen zaizkit Ttakun honetako zure artikulua, ikasi egiten dut gainera. Batetik ez nuen ezagutzen zer esan nahi zuen *spin doctor* ingelesezko esakerak eta Wikipediara jo dut: “1. Egoerei bira baikorra eragiten dien pertsona. 2. AEBetako rock taldea. 3. Jende garrantzitsua aholkatzen duena”.

David Palmer nor den ere begiratu behar izan dut. Wikipediako artikulua irakurri ahala 1. aldia... 2. aldia... 3. aldia agertzen delakoz izan ez balitz David Palmer benetan AEBetako presidentea izan zela sinetsiko nuen. Xehe-xehe ageri dira bizitza eta ekintzak, hori bai *kulebroiegi* nire gusturako. Alaba bortxatuak... Hirugarren Mundu Gerraren arriskua. Birus hiltzaileak gehiegizkoak iruditu zaizkit.

Dena dela, Katixa, Ur, Obama, lehendakaritza eta fikzioa aipaturik, nola ez akordatu *Airbag* filmeko lehendakari beltzaren zirtzarteko agerpenarekin! Baina arrazoi duzu, Ur, guretako, beno haiendako, ni nafarra naiz, zu lapurtarra, erraz irenstekoa litzateke lehendakari beltza. Erreala, trauma alegia, beste nonbait dugulako, ez arrazan baizik eta nazioan. Ongi diozunez, digestio txarra goa eraginen liguke Fernando Rubiok lehendakari espainolazoak beltz batek baino.

Dena dela, ez baduzue Fernando Rubiorik aurkitzen, nik badut lehendakari gai ederra EAEn bizi zaretenondako. Argi e! Ez dizuet ezer txarrik opa. Miguel Sanz bera. Jaurlaritzako buru dotore gelditzeaz gain, braust batean sendatuko lizueke Errealarekin duzuen trauma hori. Postindependentziarako pauso bat iruditzen zait.

Horri ez badiozue egoki, fikzioa eta errealtatea bereiztea ia ezinezkoa egiten zaigun garaian bizi garela kontuan izanik, ez legoke gaizki (berriz ere ez dizuet ezer txarrik



Juanjo Olasagarre

Agirre

Apalategi

opa) gure EAJ-PNV maiteak hauteskundeak galdu eta PSO-Eko (nik ez nieke bozkatuko, jakina) lehendakaria izatea: Francisco Lopez.

Haizeeee! Haize hogeita hamar urteko boterearen ondorioz sortu bizio eta ohitura txar guztiei! Haize, adibidez, Euskal Telebista kate hiperkistcha izateari!

Bi aukera horiek edo Urrek iradokitzen duen bezala Hollywoodeko *spin doctor* bat kontratatu eta Jaurlaritza zein ETako langile bihurtu dezatela.

Francisco Lopez lehendakari espainolazok PNVko emaztea du baina pasio sutsuko harreman sekretu batean korapilatuko da *etar* batekin. Harremanak Negoziazio Mahaia osatzea bideratu baldin badu ere, bere funtzionamendua pasioaren gora-beheri lotua izanen da. Orain maite zaitu, negoziatzaia; orain ez, altxatu egingen naiz. Horrela jarraituko dute, ez luze, gauza luzeak usteldu egiten baitira, urte pare bat edo harik eta lehendakariaren PPko alabak harrapatzen dituen arte. Orduan dena lehertu eta azkenean Franciscok eta *etar* bikote arrunta osatu eta elkarrekin bizitzen jarriko dira. Azken eszenan bien arteko ezteia islatuko da dagokion sinbologia eta patrifilio guztiekin, bi banderak, dantzariak eta sebillanak triki flamenkoaren airera hanka-besoak mugitzen, PNVko emaztea, orain bai, aizkora sorbalde-tan daukan kristoren mutikote beltz baten besotik zintzilik, PPko alaba ikurrinez eginga

dako soineko luze batekin, euskal idazleak eta Euskal Herrian bizi diren erdal idazleak euskainolez poemak erreztatzen, bertsolariak Aragoiko jotzen doinutan kantari eta abar eta abar. Oinarri-mitona izan zitekeen, Amerikako *pioneer*-rena bezain ona, erailetak, kartzelak, Parot legeak, erasoak, mehatxuak. Partiduen legez kanporatzeak ez balira. ■

Francisco Lopez lehendakari espainolazoak PNVko emaztea du baina pasio sutsuko harreman sekretu batean korapilatuko da *etar* batekin. Harremanak Negoziazio Mahaia osatzea bideratu baldin badu ere, bere funtzionamendua pasioaren gora-beheri lotua izanen da